Lezo Institutuko JANGELA BARRUKO ARAUDIA
RÉGIMEN INTERNO DEL COMEDOR. Lezo Institutua

1.- Jangela zerbitzua Lezo Institutuan eskaintzen den beste jarduera bat da, beraz dagozkion xede guztietarako Institutuko beste edozein ekintzari ematen zaion trataera izango du. Lezo Institutuko helburu eta araudi orokorrak dira Jangelako araudi zehatz hau egiteko eta aplikatzeko garaian ildoak markatuko dituztenak.

2.- Gizarte eta famili erritmoak aldatu egin dira, "jateko" esparrua ez da familiara soilik mugatzen eta gero eta gazte gehiagok erabiltzen dute eskola jantokia. "Jatekoa" ezin da gorputzaren beharrizana asetzera mugatu, ezta eskola jantokiko tartea ostalaritza zerbitzua izatera ere. Otordua eta eskola ordutegi barruko elikatzeko denbora esperientzia hezitzaile, integratzaile eta integrala bilakatu behar dugu eta, hezkuntza eta elikadura asmoekin batera, proposamen afektiboa txertatu behar dugu.

3.- Eskola-jantokiko aktibitatea erregulatzeko araudi marko orokorra dago. Bertan, besteen artean agindua, zirkularra eta hitzarmen kolektiboa ditugu:

- Agindua, 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetarako derrigorrezko ikasmailetako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituena. EHAA 2000-03-28.
- Zirkularra, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordearena, zuzeneko kudeaketa eskola-jantokien funtzionamendurako jarraibideak ematen dituena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietarako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboa.

4.- Araudi honen helburu nagusia Jangela zerbitzuaren erabiltzaileen eta bertako langileen eskubideak babestea eta betebeharretako batzuk finkatzea da.

5.- Jangela zerbitzua borondatezkoa da, ez da inor behartuta gelditzen. Izenematearekin batera Barne Araudi hau ezagutu eta onartzen dela adierazten da. Horretarako erabiltzaile eta guraso edo tutoreek araudiaren onarpena bere zehaztapen guztiekin sinatuko dute.

1.- El servicio de Comedor es uno más de los que se dan en el "Lezo Institutua", por lo tanto y a todos los efectos tendrá el mismo tratamiento que cualquier otra actividad del Centro. Son los objetivos y el Ordenamiento general del Centro los que marcarán los ejes a la hora de realizar y aplicar este Régimen concreto para el servicio de Comedor.

2.- Los ritmos sociales y familiares han cambiado, el espacio de "comer" ha dejado de estar adscrito únicamente a la familia y cada vez más jóvenes utilizan el comedor escolar. El "comer" no debe restringirse a la mera satisfacción de una necesidad fisiológica ni el tiempo de comedor escolar a un servicio de hostelería. Debemos convertir la alimentación y el tiempo que conlleva en el horario escolar en una experiencia educativa integradora e integral y, lograr que, junto con la propuesta educativa y nutricional, no falte la afectiva.

3.- Existe un marco normativo general que regula la actividad de comedor escolar en el que tenemos, entre otros, la orden, la circular y el convenio colectivo:

- *Orden de 22 de marzo de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulan los comedores escolares de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los niveles de enseñanza obligatorios y Educación Infantil (2º ciclo). BOPV 28-03-2000.*
- *Circular de la Viceconsejera de Administración y Servicios por la que se emiten instrucciones para el funcionamiento de comedores escolares en Régimen de Gestión Directa.*
- *Convenio Colectivo de Empresas de colectividades en comedores escolares de Gestión Directa dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

4.- El objetivo fundamental de este Reglamento es proteger los derechos y señalar algunos de los deberes de l@s usuari@s y trabajador@s del servicio de Comedor.

5.- El servicio de Comedor es voluntario, nadie se queda obligado. El inscribirse supone conocer y aceptar el presente Régimen Interno. Con ese fín l@s usuari@s y sus madres, padres o tutores lo firmarán aceptándolo en todos sus términos.

6.- **Ikasleen betebeharrak** izango dira:

6.1.- **Jangelara sartu baino lehen**, komunetik pasa eta eskuak garbitzea, gero bukatu arte ezingo da atera.Dagokion ordurako prest egongo da sarreran.

6.2.- **Jangela barruan**:

6.2.1.- Ikasle orok esleitu zaion tokia okupatuko du.

6.2.2.- Ikasleek ezin dute office edo sukaldean sartu espresuki baimenduta ez badira.

6.2.3.- Denetik jan behar da. Plater bakoitza bukatu behar da hurrengora pasatzeko eta menu osoa jango da.

6.2.4.- Erabiltzaile guztiek aldez aurretik ezagututako menua bazkalduko dute. Dieta bereziak emateko indarrean dagoen araudia errespetatuko da. Hezkuntza Sailak homologatuta dituenak besterik ezin izango dira eman. Dietaren beharra jangelan izena emateko garaian adierazi behar da, dagokion mediku agiria eta eskatutako bestelako dokumentuak aurkeztuz. Kasu guztietan, dieta bereziaren tramitazioa bukatu arte ezin izango da zerbitzatu.

6.2.5.- Jangelara bazkaltzera etortzen gara eta ahal bada giro lasaian gustura egotera:

6.2.5.1.- Tresneria edo janariarekin ez gara jolastuko.

6.2.5.2.- Ez dugu zarata edo iskanbilarik sortuko, ezta garrasika hitz egingo ere.

6.2.5.3.- Bazkaltzean txukuntasunez arituko gara. Tresna eta instalazio guztiak zainduko ditugu.

6.2.5.4.- Ez dugu zuzenean janaria orgatxoetan hartu edo bertan utziko.

6.2.5.5.- Uraren bila joateko, edo beste zereginetarako, ez da mahaikide bat baino gehiago batera altxatuko eta zuzenean joango dira beste mahaietan geratu gabe.

6.2.5.6.- Ez ditugu langileak oihuka deituko, behar izatean eskua altxatuko dugu.

6.2.5.7.- Besteen janaria, platera edo tresneria ez ditugu ukituko. Ez dugu janaria eman, jaso edo trukatuko bazkalkideen artean.

6.- Serán ***deberes del alumnado usuario:****:*

6.1.- ***Antes de entrar al comedor****, pasar por el baño y limpiar las manos, después no se podrá salir hasta acabar. Estará preparado en la entrada a la hora que le corresponda.*

6.2.- ***En el interior del comedor****:*

6.2.1.- Cada alumno/a deberá ocupar el sitio que se le haya adjudicado.

6.2.2.- El alumnado no podrá entrar en el office o cocina si no son expresamente autorizados para ello.

6.2.3.- Hay que comer de todo. Hay que acabar cada plato antes de pasar al siguiente y debe comerse todo el menú.

6.2.4.- Todas las personas usuarias comerán el mismo menú, conocido con antelación. Se seguirá la normativa vigente para el suministro de dietas especiales. Únicamente se podrán suministrar aquellas que estén homologadas por el Departamento de Educación. Su necesidad se acreditará al inscribirse en el comedor mediante la correspondiente certificación médica y otros documentos requeridos. En cualquier caso, hasta que finalice su tramitación, no se podrá suministrar ninguna dieta especial.

6.2.5.- Al comedor venimos a comer y, a ser posible a estar a gusto en un ambiente relajado:

6.2.5.1.- No jugaremos con la comida o utensilios.

6.2.5.2.- No haremos ruido o jaleo y hablaremos sin gritar.

6.2.5.3.- Comeremos con educación, ensuciando lo menos posible y cuidando el material y las instalaciones.

6.2.5.4.- No cogeremos o dejaremos directamente la comida en los carros.

6.2.5.5.- No se desplazará a la vez más de un miembro de la mesa para ir a por agua u otro quehacer, y cuando lo haga, irá directamente sin pararse en las otras mesas.

6.2.5.6.- No llamaremos gritando al personal de trabajo, en caso necsario levantaremos la mano.

6.2.5.7.- No tocaremos la comida, plato o utensilios de l@s demás. No daremos, recibiremos o intercambiaremos la comida entre nosotr@s.

6.2.6.- Bazkal garaia gure arteko harremanetarako aprobetxatzen saiatuko gara. Jangelara ez dugu inongo objekturik sartuko, hala nola, liburu, apunte, koaderno edo aurikular edo bestelakorik. Gailu elektronikoei dagokionez, Institutuan orokorrean dagoen araudia errespetatuko dugu.

6.2.7.- Jangelan ez ditugu jantziko burua, aurpegia edo eskuak estaltzen dizkiguten jantzi edo osagarririk, ezta jatean edo mahaian esertzean traba egiten digutenak ere.

6.2.8.- Jangelatik ezin da janaririk atera eta menua bukatu arte ezin da atera.

6.2.9.- Bazkal ondoren mahaia jaso egin behar da eta baita ingurua garbitu ere; horretarako mahaikideak elkarren artean antolatu behar dute. Bukatutakoan, garbiketan erabilitako tresneria jasoko dute eta baimena eman arte itxarongo da jangelatik mahaika atera ahal izateko.

6.3.- Jangela erabiltzaileek, zerbitzua duten egunen batean, **ezin badute etorri**, posta elektronikoz abisatu behar dute aurretik, jakin bezain pronto.

6.4.- Jangela zerbitzua daukan egun batean, ikaslea institutura etorriko balitz baina jantokira ez, eta abisu edo justifikazio idatzia egongo ez balitz, familiari abisatuko zaio.

7.- Ikaslearen familiak ordainduko du dagokion **kuota** ezarritako epeen barruan.

7.1.- Bazkaltzeko aukeratutako astegunak finkoak dira eta ezin dira nolanahi aldatu.

7.2.- Izena emanda ez dagoen ikasleren batek noizbehinka jangela zerbitzua erabili nahi badu aurretik, gutxienez hiru eguneko aurrerapenaz, idatziz abisatuko du eta menua ordainduko du.

7.3.- Kuotak, hilaren lehenengo egunetan kobratuko dira banku-helbideratzearen bitartez.

7.4.- Ohiko erabiltzaile guztiek zortzi kuotak ordaindu beharko dituzte, lehenengoa urrian eta maiatzean azkena.

6.2.6.- Intentaremos aprovechar el tiempo de la comida para relacionarnos con los demás. Al comedor entraremos sin ningún objeto, tampoco libros, apuntes, cuadernos o auriculares. Con respecto a los aparatos electrónicos se seguirá la normativa válida para todo el Instituto.

6.2.7.- No llevaremos en el comedor prendas o complementos que nos tapen la cabeza, cara o manos, o que nos obstaculicen a la hora de comer o sentarnos en la mesa.

6.2.8.- No se puede sacar comida del comedor y no se saldrá hasta finalizar el menú

6.2.9.- Después de comer cada mesa se organizará para recoger y realizar la limpieza de la mesa y su entorno. Al terminar recogerán los utensilios de limpieza y esperarán el permiso para poder salir por mesas.

*6.3.- Si una persona usuaria de comedor **no puede asistir** un día que tiene servicio, avisará con anticipación por correo electrónico tan pronto como le sea posible.*

6.4.- Si un día que tiene servicio de comedor una persona usuaria viene al instituto pero no se queda a comer y no consta justificación escrita o aviso se avisará a la familia.

*7.- La familia del/a usuari@ pagará la correspondiente **cuota** en los plazos señalados.*

7.1.- Los días de la semana elegidos para comer serán fijos y no podrán cambiarse a capricho.

7.2.- Si un alumno / alumna no inscrito desea utilizar puntualmente el servicio de comedor avisará por escrito con tres días de antelación como mínimo, y abonará el correspondiente menú.

7.3.- Las cuotas se cobrarán por domiciliación bancaria en los primeros días de cada mes.

7.4.- Todas las personas comensales habituales deberán pagar las ocho cuotas, la primera en octubre y la última en mayo.

7.5.- Kuotaren kalkulua egiteko, bazkaltiar bakoitzak, ikasturtean zehar, jangela zerbitzua daukan egun zehatzak zenbatuko dira; kontutan hartuko da iraila eta ekaineko aldietarako izena eman duen ala ez; hori bazkaltiar horri dagokion menuaren prezioarengatik biderkatu eta urritik maiatzera arteko zortzi kuotetan zatituko da.

7.5.- Para el cálculo de la cuota se contarán los día reales en que cada comensal dispondrá de servicio de comedor durante todo el curso, teniendo en cuenta si se inscribe para los períodos de septiembre y junio o no, se multiplicará por el precio del menú que le corresponde a ese comensal y se dividirá entre ocho cuotas mensuales de octubre a mayo.

7.6.- Jangelako kuota kobratzeko arazoak daudenean, zerbitzua erabiltzeko, kuota aurretik ordaintzea exijitu daiteke.

7.6.- Cuando existan problemas para el cobro de la cuota se podrá exigir su pago por adelantado.

7.7.- Ordainketa arazoak ez badira konpontzen, erabiltzailea zerbitzurik gabe utz daiteke, behin behineko edo behin betiko zuzenean.

7.7.- Si no se solucionaran los problemas para el cobro de la cuota se podrá dejar sin servicio de comedor bien temporalmente o bien directamente de manera definitiva.

7.8.- Ikasturtean zehar erabiltzaileren batek baja eskatzen badu, hamabost eguneko aurrerapenarekin adierazi beharko du, eta dagokion kitapena egingo zaio. Ikasturte hasieratik jangela zerbitzua izan dituen egunak, kobratuko zaizkio eta, ordura arte, kuotetan ordaindutakoa deskontatuko zaio.

7.8.- Si alguien decide darse de baja durante el curso deberá advertirlo con quince días de antelación, y se le realizará la liquidación correspondiente en la que se le cobrarán los días que haya dispuesto de servicio de comedor desde el principio de curso, descontándole lo pagado hasta el momento en las cuotas.

8.- **Arauak hausteak ondorioak** izango ditu eta arduradunek gertatutakoari egokitutako neurriak hartuko dituzte:

*8.- **El incumplimiento de este Régimen Interno** tendrá consecuencias y l@s responsables tomarán medidas adecuadas:*

8.1.- Jarrerak zuzentzeko neurriak hartzean, hutsegiteen parekoak izango dira eta azken helburua ikaslearen hezkuntza-prozesua hobetzea izango da. Hutsegiteak eragindako kaltea leheneratzea eta burututako hutsegiteaz eta aurrerantzean berriro ez gertatzeko erari buruzko hausnarketa eragiteko hartuko dira erabakiak. Beraz ondorioak hezitzaileak izango dira.

8.1.- Para corregir actitudes contrarias a este reglamento se tomarán medidas acordes con la falta realizada y que tendrán como último objetivo mejorar el proceso educativo del o de la alumna. El objetivo de las resoluciones será reparativo y pretenderá que se reflexione sobre las causas y los perjuicios causados con el fin de que actos similares no vuelvan a producirse en el futuro, es decir se les dará un enfoque educativo.

8.2.- Institutuko beste edozein hutsegite kalifikatzeko edo neurri zuzentzaileak aplikatzeko era berean jokatuko da. Honela Jangela garaiko hutsegiteek AJAn zehazten den trataera izango lukete kasuan kasukoa: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

8.2.- En la actuación se procederá de mismo modo que en la calificación y aplicación de cualquier medida correctora en el instituto. Así las infracciones durante el período del comedor tendrán el tratamiento que se concreta en el ROF para las conductas inadecuadas, contrarias a la convivencia o conductas que perjudican gravemente a la convivencia.

8.2.1.- Gainera, neurrien artean hauek egon daitezke:

- Ahoz ohartarazi, era pribatuan.
- Guraso edo tutoreei informatzea.
- Ikaslea mahaiaz aldatzea, beste talde batean edo bakarrik jarriz denboraldi baterako edo ikasturte bukatu arte.
- Plater bat bukatu ezean, hurrengoa ez zerbitzatzea.
- Zeregin konpentsatzaileak:
  - o Hutsegiteak eragindako kaltea edo galera berreskuratu edo leheneratzeko
  - o Edota burututako hutsegiteaz eta aurrerantzean berriro ez gertatzeko erari buruzko hausnarketa eragiteko.
- Kuota ordaintzeko arazoak ematen dituztenei hau aurretik eskatzea.
- Jangela zerbitzutik kanpo behin behineko edo behin betiko gelditzea.

8.2.2.- Ikaslea behin behineko Jangela zerbitzutik kanpo uzten bada, astebeterako edo gutxiagorako kanporatze kasuan ez da dirurik deskontatuko. Aldiz epe handiagorako kanporatua bada lehenengo astea ez, hortik aurrera janariari dagokion kopurua ez zaio kobratuko baina jangela zerbitzuak dituen beste gastuak ordainduko ditu. Ikasturte bukatu arte zerbitzurik gabe uztekotan, dagokion diru kitapena egingo zaio.

8.2.1.-Además, entre las medidas tomadas podrán figurar las siguientes:

- *Apercibimiento oral en privado.*
- *Informar a los padres o tutores.*
- *Cambiar de mesa al/a alumn@, poniéndolo/a con otro grupo o sólo/a por un período de tiempo o hasta el final de curso.*
- *No servir un plato si no se acaba el anterior.*
- *Actividades compensatorias:*
  - o *Con el fin de recuperar o reparar lo que la falta malogre.*
  - o *Y/o de promover la reflexión sobre la falta cometida y la forma de evitarla en el futuro.*
- *En caso de problemas con el pago de la cuota, pedir su pago por adelantado.*
- *La expulsión temporal o definitiva del servicio de Comedor.*

8.2.2.- Si se expulsa temporalmente a un alumno o alumna, en caso de ser por un período de una semana o inferior no se descontará ninguna cantidad de dinero. En cambio, si es expulsad@ por un período mayor, a partir de la primera semana no se le cobrará la cantidad destinada a la comida, pero sí lo correspondiente a los otros gastos del servicio de comedor. Si se le deja sin servicio para el resto del curso, se le efectuará la correspondiente liquidación.